



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

KOOPERANTE JOAN NAHI DUZU? 2007

- 1) **HIRU MODU GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE BATEKIN (GGKE) JOATEKO HEGOALDEKO HERRIALDEETARA:**
 - A. **BRIGADAK, LAN EREMUAK ETA ELKARTASUN BIDAIAK**
 - B. BEREN LANKIDETZA PROIEKTUETARA **BOLUNTARIOAK** BIDALTZEN DITUZTEN GIPUZKOAKO GGKE-AK
 - C. BEREN LANKIDETZA PROIEKTUETARA KOOPERANTE PROFESIONALAK BIDALTZEN DITUZTEN GGKE-AK

- 2) **LANKIDETZA PROGRAMA ETA BEKAK**

Informazio gehiago:

Euskadiko GGKE-EN KOORDINADORA

GIPUZKOAKO Ordezkaritza

Tel.: 943 46 35 26

redesgipuzkoa@ongdeuskadi.org

<http://www.ongdeuskadi.org>

1) HIRU MODU GGKE BATEKIN JOATEKO HEGOALDEKO HERRIETARA:

A) BRIGADAK, LAN EREMUAK ETA ELKARTASUN BIDAIK

Horiek dituzu modurik onenak lehen aldiz hurbiltzeko pobretutako herrialdeen eta GGKEek nahiz elkartasun mugimenduen egiten duten lanaren errealitatera...

"Gauza txikiak dira. Ez dute pobrezia desagerrarazten, baina, agian, egiteak ematen duen poza sorrarazten dute, eta ekintza bihurtarazi. Azken finean, errealitatearen gainean jardutea eta errealitate hori aldatzea, pittin bat baino ez bada ere, modu bakarra da errealitatea aldagarria dela frogatzeko. (Eduardo Galeano)

2007KO ELKARTASUN BRIGADAK

Brigadak hegoaldeko herrialdeetara taldean egiten diren bidaiak dira, tokian tokiko gizarte erakunde eta mugimenduen eskutik. Helburua da herrien errealitateak eta borroak ezagutzea, haiekin bizitzea eta, itzulitakoan, salaketa eta sentsibilizazioa bultzatzea, han bizi izandakoa hemen ezagutarazteko. Batzuetan, lan jakin batzuk egiten dira; beste batzuetan, berriz, bisitak eta bizipen eta informazio trukeak bakarrik.

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

<http://www.herriak.org/ki/>

Norakoak: Palestina, Kolonbia, Kuba, Venezuela, Brasil eta Bolivia. Egunak 2007ko apirilean argitaratuko dira. Ikus web orria.

Izen-ematea: kibilbo@herriak.org Tel: 94 4790703 (Astehel.-Ostir.: 9:00-14:40, Astear.: 20:00-22:30)

ASKAPENA

<http://www.askapena.org/>

Norakoak: Bolivia, Irlanda, Palestina, Kuba, Venezuela, Ekuador... Informazioa:

- *Nafarroa:* 948212271-Iruñea: Jarauta, 21 – behe; astelehen, asteazken eta ostiraletan, 17:00/20:00 635759193-Sakana: astelehen eta asteartetan 18:00etatik aurrera.
- *Iparraldea:* 0559206957-Hendaia: arratsaldeko 19:00etatik aurrera.
- *Bizkaia:* 944332880-Bilbo: Zabalbide, 17-behea.
- *Gipuzkoa:* 943552365-Hernani: Kale nagusia, 38-behea; ostegunetan, 19:00etan.
- *Araba:* 945280847-Gasteiz: Kutxi, 15-behea; astearte, ostegun eta ostiraletan, 17:00etatik aurrera eta larunbatetan, 12:00etatik aurrera.

NIKARAGUAKO NAZIOARTEKO ELKARTASUN BRIGADAK

<http://php.ravalnet.org/casasolidaritat/index.html>

Nikaragua Etxeak Baix Llobregaten (Bartzelona) duen ordezkariak antolatzen ditu uztail-abuztuaren egonaldi solidario hauek. Barcelonès eta Baix Llobregat eskualdeetako herri guztiek parte har dezakete.

Norakoa: Nikaragua.

Izen-ematea: urtarrilaren 22tik martxoaren 24a arte, **ksanika_baixllob@yahoo.es** helbide elektronikoaren bitartez edo telefono hauetara deituta: **93 638 36 24** (Sant Jordi de Gavàko Erakundearen Etxea) edo **93 443 43 92** (Bartzelonako Elkartasun Etxea).

KATALUNIako BAKEAREN ALDEKO ELKARTEA ETA BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOA

<http://www.acpau.org/estiu/>

www.ongdeuskadi.org · Bilbao · coordinadora@ongdeuskadi.org

<http://www.pazysolidaridad.coo.es/web/portada.asp>

2007ko Latinoamerikako **Elkartasun Brigadak** Euskadiko Langile Komisioen Bakea eta Elkartasuna Fundazioak eta Kataluniako Bakearen aldeko Elkarreak batera antolatu dituzte. Helburua da Hegoaldeko herrialdeek bizi duten errealitatea hobeto ezagutzea. Horretarako, aldi batez, brigadistek herrialde horietako arazoak aztertu eta gogoeta egingo dute, eta bisitatzeko dituzten komunitateen ahotik zuzenean ezagutuko dituzte arazo horiek.

Norakoak: Venezuela, Kolonia, Kuba, Argentina, Paraguai, Brasil, Guatemala, El Salvador eta Nikaragua.

Izen-ematea: informazio-hitzaldira joaten bazara, Elkartasun Brigaden araudia eta izen-emate orria emango dizkizute bertan. Hitzaldiak egun eta toki hauetan izango dira:

- Bartzelonan: martxoaren 14 eta 28an, asteazkenarekin, iluntzeko zortzietan; otsailaren 17an eta martxoaren 10 eta 24an, larunbatarekin, goizeko hamaiketan.
- Manresan: martxoaren 2an, ostiralarekin, iluntzeko zortzietan.
- Reusen: otsailaren 10ean, larunbatarekin, goizeko hamaiketan.
- Lleidan: otsailaren 28an, asteazkenarekin, eguerdiko hamabietan.
- Gironan: otsailaren 14an, asteazkenarekin, iluntzeko zortzietan.

93 318 84 44 edo 93 481 29 12 telefonoak nahiz acp@pangea.org edo fpauisoli@conc.es helbide elektronikoak ere balia ditzakezu harremanetan jartzeko.

2007KO LAN EREMUAK

Lan eremu batean parte hartzeko, hainbat jatorritako lagunek osatutako talde batek hitz ematen du, borondate hutsez eta ordainetan ezer jaso gabe, gizartean eragina izango duen lan bat egingo duela, bi-lau aste bitarteko epealdi batean, bai eta osagarritzako ekintza batzuk ere. Proiektua gauzatzeak balio jakin batzuk sustatzeko balio du: elkarbizitza, tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea, kulturen arteko ikaskuntza, e.a.

SCI-SIV (NAZIOARTEKO BOLUNTARIO ZERBITZUA)

<http://www.ongsci.org/es/>

Gobernuz kanpoko erakunde honek bi eta lau aste bitarteko lan eremuak antolatzen ditu urte osoan zehar (batez ere, udan), herrialde askotan eta oso gai desberdinak lantzeko (ekologia, haurrak, elbarritasunen bat duten pertsonak, arkeologia, bidezko merkataritza, heziketa, garapena, e.a.). Nork bere bidai gastuak eta kuota bat ordaintzen ditu; ostatu, otordu eta aseguru gastuak lan eremuaren antolatzaileek ordaindu ohi dituzte. Badaude, baita ere, Iparra-Hegoa elkartasun eremuak; horietan parte hartu nahi dutenek 21 urte baino gehiago izan behar dituzte. Ikus web orria, han ematen baitute lan eremuen berri, antolatu ahala.

Norakoak: mundu osoko herrialde asko.

Izen-ematea: Web orria eta telefono zenbaki hau: 91 3663259. Denborarekin begiratu, plazak berehala agortzen dira-eta!

EUSKO JAURLARITZAREN LAN EREMUAK

[http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-3412/es/contenidos/informacion/campos_trabajo_definicion/es_7479/campos_trabajo_definicion.html)

[3412/es/contenidos/informacion/campos_trabajo_definicion/es_7479/campos_trabajo_definicion.html](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-3412/es/contenidos/informacion/campos_trabajo_definicion/es_7479/campos_trabajo_definicion.html)

Betekizunak: Euskadiko Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea. 15-30 urte bitartekoa izatea. Atzerrira joateko: 18 urte baino gehiago izatea eta herrialdeko hizkuntza ezagutzea. Prezioa: 72 € eta bidaia. Ostatu eta otordu gastuak, ordainduta.

Informazioa eta izen-ematea: Andia kalea, 13. Tel.: 943 022964 (Donostia).

Posta elektronikoa: bidali mezu elektroniko bat gazteria@ej-gv.es helbidera, "Gaia"n "Lan eremuak" jarrita. 012 telefonoa (Zuzenean, Hiritarrei Arreta Emateko Zerbitzua).

Epea 2007ko apirilaren 19an irekiko da. Informazio gehiago, web orrian.

www.ongdeuskadi.org · Bilbao · coordinadora@ongdeuskadi.org

2007KO ELKARTASUN BIDAIAK

SODEPAZ

http://www.sodepaz.es/index.php?option=com_content&task=view&id=24&Itemid=9

Norakoak: 2007ko udarako, SODEPAZ turismo solidarioko bidaia batzuk eta borondatezko lan brigadak antolatatu ditu. Hona herrialdeak: Bolivia, Kuba, El Salvador, Mexiko, Palestina, Peru eta Venezuela. Kontsumo Solidarioaren Sarearekin batera (Xarxa de Consum Solidari) bidaia batzuk antolatuko ditu Brasil, Ekuador eta Dominikar Errepublikara.

Izen-ematea: Izena Sodepazen web orriaren bitartez eman beharko duzu, martxoko bigarren astetik aurrera. Izena emateko azken eguna apirilaren 22a izango da. Izen-emate kuota: 60 €. Kuota, banku transferentziaren bitartez ordaindu beharko duzu, dirua martxoaren 20tik aurrera web orrian agertuko den kontu korrontearen zenbakira bidalita. Derrigorrezkoa da prestakuntzan parte hartzea, ekaineko lehen asteburuan (ekainaren 1, 2 eta 3), Manjirón-en (Madril). Programaz eta bidaien helburuez zerbait jakiteko, esteka hauetara jo dezakezu (datozen egunetan informazioa eguneratuz joango dira): [Bolivia](#), [Cuba](#), [El Salvador](#), [México](#), [Palestina](#), Peru eta [Venezuela](#). Informazioa telefonoz eskuratu nahi izatera, deitu asteazken arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00ak arte, telefono hauetara: 902 367 192 * 915 228 091 * 616 404 444.

SETEM CATALUNYA

<http://www.setem.cat/delegaciones/catalunya/generales.php?id=8&ids=18&lg=ca&PHPSESSID=44c79b02fc52c63f1f55d757da75b0fa>

Nazioarteko Boluntarioak izeneko programak aukera ematen du Afrika, Latinoamerika nahiz Asiako herrialde pobretutako batean aurrera eramaten den garapen proiektu bat lehen eskutik ezagutzeko. Herrialde bakoitzeko kooperanteek koordinatzen dute boluntarioen egonaldia.

Norakoak: Afrika (Gambia, Ghana, Marroko, Mozambike, Senegal), Latinoamerika (Argentina, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Dominikar Errepublika, El Salvador, Ekuador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Peru) eta Asia (Filipinak, India), uztail, abuztu eta irailean.

Izen-ematea: 2007ko urtarrilaren 15etik otsailaren 16a arte. Kataluniako hainbat hiritan egiten diren informazio-hitzaldietako batera joan beharko duzu. 93 441 53 35 telefonoan edo camps@setem.org helbide elektronikokoan ere lortu dezakezu informazioa.

COOPERACCIÓ

<http://www.cooperaccio.org/>

Cooperacció Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea berarekin harremanetan dauden Hegoaldeko herrialdeetako errealitatea ezagutu nahi duten pertsonak aukeratzen hasi da. Egonaldiak uztailetik iraila bitartean egiten dira, hilabete irauten dute eta talde bakoitzean zortzi lagun onartzen dituzte, gehienez.

Norakoak: Nikaragua, El Salvador, Guatemala eta Marroko, besteak beste.

Izen-ematea: *Cooperacció*ren bitartez elkartasun egonaldi bat egin nahi dutenek estades@cooperaccio.org helbidera jo dezakete edo, nahiago izanez gero, 93 318 34 25 telefonora.

BAKEAREN ALDEKO LANKIDETZA BATZARRA

<http://www.acpp.com/CCsT.htm>

Hamargarren urtez, jarraian, Bakearen Aldeko Lankidetzaren Batzarrak **Lankidetzaren Ikastaroak Tokian Bertan** izeneko programa antolatu du, aurtengo udarako. Garapenerako lankidetzaren nondik norakoak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Horretarako, zirkuitu turistikoetatik urrun bizi diren komunitateen bizimodura hurbildu beharra dago, beren bizi baldintzak hobetzen dituzten aktoreak berek izan behar dutela ohartu eta nazioarteak helburu horietarako ematen duen laguntza aintzat hartu. Hiruzpalau astez, parte hartzaileak beste bizimodu eta kultura batzuetara hurbilduko dira eta Bakearen Aldeko Lankidetzaren Batzarrak lagundutako

komunitateetan bizi izango. Bestalde, hasieran prestakuntza teorikoa jasoko dute, proiektuak identifikatzen, formulatzen eta ebaluatzen jakin ahal izateko.

Norakoak: El Salvador eta Guatemala (abuztua), Honduras (uztail eta abuztua), Marroko (uztail eta abuztua), Palestina eta Israel (abuztua), Dominikar Errepublika (uztail eta abuztua), Senegal (uztail eta abuztua) eta Tunez (uztail eta abuztua).

Izen-ematea: Maiatzaren 15a arte, harremanetan jar zaitezke Elena Couceiro Arroyorekin, **91 4680492** telefonoan, elkartearen web orriaren bitartez edo mezu bat bidaliz helbide honetara: accionsocial@acpp.com

PAZ CON DIGNIDAD

<http://www.pazcondignidad.org/>

Bidaiak, Hegoaldeko herrialdeetako errealitatea ezagutzeko, uztail, abuztu eta irailean. Paz con Dignidad elkarteak elkartasun bidaien proiektua kudeatzen du. Ekimen honek herri bakoitzeko arazoak eta komunitateek planteatzen dituzten alternatibak ezagutzeko tresna izan nahi du.

Norakoak: Kolonia, Ekuador eta Palestina.

Izen-ematea: Deitu 91 523 38 24 telefonora edo bidali mezu bat pazcondignidad@nodo50.org helbidera.

OSCAR ROMERO BATZORDEAK-KATALUNIA

<http://viajescor.blogspot.com/>

Hilabeteko bidaiak, Guatemala, El Salvador edo Nikaraguara. Eskualdeko biztanleekin bizitza, nola bizi diren ikusi eta ikasteko. Taldeko esperientzia, uztailean edo abuztuan. Ezinbestekoa da hamazortzi urte beteta izatea. Bidaia prestatzeko, bilera batzuk egiten dira lehenago, eta derrigorrezkoa da bertan parte hartzea:

- 1. bilera: maiatzaren 5 eta 6an.
- 2. bilera: ekainaren 16 eta 17an.
- 3. bilera (bidaia amaitu eta gero): urriaren 6 eta 7an.

Norakoak: Guatemala, El Salvador, Nikaragua.

Izen-ematea: apirilaren 30a arte, 93 801 07 33 edo 616 645 513 telefonoen bitartez. <http://viajescor.blogspot.com/> blogera ere jo dezakezu.

SOARPAL

<http://solidaries.org/agenda/brigsoarpal.jpg>

Soarpal, Arbucies eta Palacaguinaren arteko elkartasuna bultzatzen duen erakundea da. 1986az geroztik, bi herriok elkar ezagutzea ahalbideratzen du, distantzien gainetik. Egonaldiak abuztuaren 4tik 31 arte izango dira. Palacaguinan brigadista izan nahi baduzu, maiatzaren 5 eta 19an eta ekainaren 16an egingo diren prestakuntza jardunaldietako batean parte hartu beharko duzu.

Norakoa: Palacaguina.

Izen-ematea: deitu 972 162 626, 972 162571 edo 972 162134 telefonoetara, edo idatzi soarpal@hotmail.com helbidera.

B) BEREN LANKIDETZA PROIEKTUETARA BOLUNTARIOAK BIDALTZEN DITUZTEN GIPUZKOAKO GGKE-AK

Esperientzia edo prestakuntza baduzu garapenerako lankidetzaren alorrean edo lan prestakuntza proiektuei lotutako alor teknikoetan, aukera duzu boluntario gisa lan egiteko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde batekin. Hona hemen egoitza Gipuzkoan duten GGKE batzuen datuak, bai eta eskatzen dituzten betekizunak ere. Kooperante boluntarioak bidaltzen dituzte hainbat herritara. Informazio gehiago nahi izanez gero, bisita itzazu beste GGKE batzuen web orriak.

ÁFRICA DIRECTO

Pablo Gorosabel, 5 4. Ezk. · 20400 Tolosa Tel.: 670 420689/630 790552 afroihana@wanadoo.es

Lankidetzaren proiektuak: Elikadura · Nekazaritza eta abeltzaintza · Trebakuntza · Hezkuntza · Osasuna · Azpiegiturak · Ekoizpenerako proiektuak · Generoa

Herrialdeak: Malawi · Burkina Faso · Mali · Kongoko Errepublika Demokratikoa · Sudan · Kenya · Sierra Leona · Etiopia · Kamerun · Benin · Angola · Mozambike · Burundi · Uganda · Zimbabwe...

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: Iraupen luzea (gutxienez 9 hilabete)

Betekizunak: *Ez dago derrigorrezko betekizunik.

* Irteera egin aurretik bakarkako elkarrizketa bat eta formakuntza ikastaroa bat egingo da Madrilan.

* Boluntarioak bere gain hartuko ditu gastu guztiak, dena den, zenbait kasutan laguntza lortzeko aukera egon daiteke. Kontsultatu.

EUSKAL HERRIKO MUGARIK GABEKO ARKITEKTOAK

Oñati plaza, 2. 20009 Donostia; tel.: 943 314415; Fax zk.: 943 314415 asf.pv@euskalnet.net

Lankidetzaren proiektuak: Hezkuntza · Azpiegiturak · Etxebizitza.

Herrialdeak: Peru.

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: egonaldi laburrak (uda).

Betekizunak: Eusko Jaurlaritzaren *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren bitartez baino ezin da parte hartu.

HAURRALDE FUNDAZIOA

Juan Carlos Guerra kalea 36, behea – 20016 Donostia.

Tel.: 943 246621; Fax zk.: 943 246622; ong@haurralde.org; www.haurralde.org.

Lankidetzaren proiektuak: mota bat baino gehiago.

Herrialdeak: Peru, Argentina, Bolivia, Dominikar Errepublika, Haiti, Etiopia, Tanzania, Kamerun, Mozambike, Angola, Eritrea, India...

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: Kooperante boluntarioak bidaltzen dituzte urte osoan zehar, ezaugarri desberdinak dituztenak, programaren beharren arabera.

Betekizunak:

*Hizkuntzak: Asia: ezinbestekoa da ingelesez ondo jakitea. Afrika: ezinbestekoa ingelesez eta frantsesez ondo jakitea, herrialdearen arabera.

*Haurralde Fundazioak boluntarioentzat antolatutako ikastaroa.

*Izandako esperientzia euskal gizarteari itzultzeko konpromisoa (solasaldia, hitzaldia, sentsibilizazio ekintza). GGKEk eta boluntarioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatzen dute.

*Egonaldiak hiru hilabete irauten du, gutxienez.

*Garraio eta egonaldi gastuak boluntarioaren kontura. Haurraldek aseguru gastuak eta, kasu berezi batzuetan, egonaldikoak ere hartzen ditu bere gain.

INTERED EUSKAL HERRIA

Bengoetxea 4, behea · 20004 Donostia.

Tel.: 34-943-279044 Fax zk.: 943-271238 intered@euskalnet.net www.intered.org

Lankidetzaren proiektuak: Trebakuntza · Hezkuntza · Giza Eskubideak · Ingurumena · Generoa.

Herrialdeak: Argentina · Bolivia · Brasil · Txile · Kolonia · Guatemala · Mexiko · Peru · Dominikar Errepublikar · Uruguai · Venezuela · Filipinak · India · Ekuatore Ginea · Kongo

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: egonaldi laburrak (uda).

Betekizunak:

- * 20 urtetik gorakoa izatea.
- * Lankidetzarako Prestakuntzari buruzko ikastaro bat egitea (urteko lehen hiruhilabetekoan).
- * Esperientziaren bat izatea boluntario gisa.
- * Gastu guztiak ordaintzea: prestakuntza ikastaroa, bidaia, aseguru, egonaldia.
- * Informazio gehiago, web orrian: www.intered.org → "Educación para el Desarrollo" → "Formación del Voluntariado"

PEACE BRIGADES INTERNATIONAL (PBI)

Gonzalo Salazar kalea 1, 4. esk. 39008 SANTANDER

Tel: 942 071096 pbiee@pangea.org <http://www.pangea.org/pbiee/>

Lankidetzaren proiektuak: Giza eskubideak.

Herrialdeak: Mexiko · Kolonia · Guatemala · Nepal · Indonesia.

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: Gutxienez, hamabi hilabete (hamazortzi Kolonbiaren kasuan). Giza eskubideen defendatzaileak babesteko proiektuak, Kolonian, Mexikon, Guatemalan, Nepalen eta Indonesian.

Betekizunak:

- * 25 urtetik gorakoa izatea.
- * Latinoamerikarako, gaztelania menperatzea. Indonesiarako: ingelesa eta bahasa indonesian (bertan ikasteko aukera ere ematen da). Nepalera: ingelesa eta nepali (bertan ikasteko aukera).
- * Esperientzia edota prestakuntza alor hauetako batean: giza eskubideetan, lankidetzan, elkartzasunean, gizarte mugimenduetan...
- * Aintzat hartuko dira honakoak: Esperientzia edota prestakuntza harreman publikoetan, azterketa politikoan, komunikazioan, herrialdeko errealitatea ezagutzeko, kazetaritzan, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan...
- * Ezinbestekoa da urrutiko prestakuntza-hautaketa prozesu bat eta astebeteko presentziako entrenamendua gainditzea.
- * PBIk bere gain hartzen ditu bidai, ostatu eta otordu gastuak, eta dirutxo bat ere ematen die boluntarioei, gastu txikietarako.

SERSO EUSKAL HERRIA

53 PK · 20500 Arrasate (Angel M^a Ipiña) Tel.: 628.10.61.92 anjeltxu@yahoo.es

Lankidetzaren proiektuak: Nekazaritza eta abeltzaintza · Trebakuntza · Heziketa · Osasuna...

Herrialdeak: Honduras · Txile · Boli Kosta · Peru · Bolivia

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: Oro har, hiru hilabete gutxienez, baina udan hilabete bat edo biko esperientzia-eremuak ere antolatzen dira.

Betekizunak:

- * Aukeran, aukeratutako proiektuarekin zerikusia duen lanbide heziketa.
- * Batzuetan, beharrezkoa da herrialdera joan aurretik egiten diren prestakuntza-elkarraldietan parte hartzea.
- * Kontuan hartuko da izangaia *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programan sartu ahal izatea, baina ez da ezinbestekoa.

TAUPADAK

Kale Nagusia 17, 2.a · 20304 Irun

Tel.: 943 631013 eta 699 399483 fernandolahera@telefonica.net

Lankidetzaren proiektuak: Musika Eskola, Boliviako Amazonian.

Herrialdeak: Bolivia.

Boluntarioak beste herrialde batzuetan: Urte osoan, aukeran hemengo oporraldietatik kanpo.

Betekizunak: Musikari lotutako profila dutenak eta musika irakasleak. *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* Eusko Jaurlaritzaren programaren barruan. Boluntario lanak egiteko programa horretatik kanpo, galdetu.

C) BEREN LANKIDETZA PROIEKTUETARA KOOPERANTE PROFESIONALAK BIDALTZEN DITUZTEN GGKE-AK

Ikasketa eta ezagupen egokiak eta esperientzia baduzu, plaza bat eskatu dezakezu kooperante profesional moduan jarduteko. Ia GGKE guztiek oso profil desberdinak behar izaten dituzte urtean zehar: osasun arloko profesionalak, logistak, hezitzaileak, agronomoak, administrariak, ekonomistak...

GGKE-ETAN PROFESIONAL MODUAN BOLUNTARIO ARITZEKO AUKERAK BILATZEKO WEB ORRIAK:

<http://www.ongdeuskadi.org> (Euskadiko GGKEen Koordinadoraren Buletinaren harpidetza egiten baduzu, astero jasoko dituzu euskal GGKEetan ateratzen diren lan-eskaintzak).

<http://www.congde.org>

<http://www.hacesfalta.org>

<http://www.sector3.net>

<http://www.canalsolidario.org/web/>

<http://www.relief.org> (ingelesez)

<http://www.idealists.org/if/idealists/es/Home/default>

2) LANKIDETZA PROGRAMA ETA BEKAK

NAZIO BATUENAK

BOLUNTARIOEN PROGRAMA, UNESCO-RENA

Programa hau Nazio Batuen Erakundearen Beken barruan kokatzen da, eta Eusko Jaurilaritzako Lankidetzazuzendaritzak diruz laguntzen du. Haren bidez, UNESCO Etxeak beka batzuk ematen ditu eta haiek lortzen dituztenak bekadun moduan hasten dira lanean UNESCOK Hegoaldeko herrialdeetan dituen ordezkarietzan, heziketa, zientzia, kultura, komunikazioa, generoa, gizarte garapena eta antzeko arloetako programak gauzatzuz.

Betekizunak: Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea (urte bete lehenagotik, gutxienez) . Unibertsitate mailako tituluak . Prestakuntza espezifikoa . 35 urte baino gutxiago izatea deialdia egin den urtean. Hautaketa-prozesua apirilean hasiko da.

Rodríguez Arias kalea, 41; Tel.: 94 4276432, Fax zk.: 94 4272548

<http://www.unescoeh.org> koopera@unescoeh.org

UNICEF GIPUZKOA

UNICEFek haurren aldeko lanarekin zerikusia duten arloetako adituak behar izan ohi ditu.

Miracruz, 32 behea 20002 DONOSTIA

Tel.: 943 271161 / 943 279784; Fax zk.: 943 288024

<http://www.unicef.es>

gipuzkoa@unicef.es

ACNUR EUSKAL BATZORDEA

Urtero deialdi bat egiten da Nazioarteko Profesionalen Zerrendarako hautaketan parte hartzeko (International Professional Roster, IPR, ingelesez).

Hurtado de Amezaga, 27 - 12 - Dep.: 4 48008 BILBO

Tel.: 94 4431274; Fax zk.: 94 4431274

<http://www.acnur.org>

euskalaid@acnur.org

UNIFEM BEKAK

Urtero, emakumeek UNIFEMek (Nazio Batuen Emakumearentzako Garapen Funtza) Latinoamerikan dituen bulegoetan boluntario moduan lan egiteko plaza batzuk ateratzen dira.

Betekizunak: Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea . Unibertsitate titulua . Generoaren arloko prestakuntza espezifikoa . Ingeles maila altua (tituluen bidez nahiz ahozko proba baten bidez egiaztatu beharko da) . Bidaiatzeko prest egotea. **Balorazio irizpideak:** Graduondoko ikasketak (batez ere, Genero eta Garapenari buruzkoak) . Lan esperientzia emakumeen erakundeekin . Lan esperientzia pobretutako herrialdeetan (batez ere, Latinoamerikan) . Euskara eta ingelesa ez beste hizkuntza batzuen ezagupenak.

Informazioa eta izen-ematea: http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/becas_unifem

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN BEKAK, EUSKO JAURLARITZARENAK

Programen laburpena:

* **Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa:** 20-31 urte bitarteko gazteentzat. Euskadiko GGKEren batek pobretutako herrialde batean aurrera eramaten ari den proiektu batean hiru hilabetez parte hartzeko aukera ematen du. **Izena emateko epea:** apirilaren 13tik 30era.

Betekizunak: Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea . 20-30 urte bitartekoa izatea . Herrialdeko hizkuntza ezagutzea.

* **Kooperanteentzako laguntzak:** GGKEentzat eta bestelako erakundeentzat. Euskal kooperante profesionalen lana finantzatzeko laguntza dute helburu. Diru laguntzak jaso ahal izateko, interesatuak pobretutako herrialdeetan gauzatzekoak diren garapen proiektuei lotuko zaizkie, bizpahiru urtez.

* **Garapenerako Lankidetzako arloko profesionalak espezializatzeko bekak.** Profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzea dute helburu. Aukera ematen diete bekadunei Etxebizitzako eta Gizarte Gaietako Sailean, Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzan, prestakuntza jasotzeko.

* **Nazio Batuetako nazioarteko erakundeentzako eta haiei lotutako zuzenbide izakientzako laguntzak:** Aukera ematen zaie horrelako erakundeei Euskal Autonomia Erkidegoko kooperante boluntarioei bekak emateko laguntza finantzarioa lortzeko. Beka lortzen dutenek nazioarteko erakunde horiek pobretutako herrialdeetan dituzten ordezkarietzan egiten dituzten lanetan parte hartzen dute. Hala, aukera izaten dute gertutik ezagutzeko nola aritzen eta nola antolatzen diren erakundeok.

Informazio zehatza web orri honetan: <http://www.lankidetzak.info/becas.html>

Eusko Jaurlaritzak - Etxebizitzako eta Gizarte Gaietako Saila

Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza

Donostia kalea 1, 010010 Vitoria-Gasteiz; Tel.: 945018087

AECI-K EMATEN DITUEN BEKAK (NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ESPAINIAKO AGENTZIA)

Beka-programa. Lankidetzako proiektuak Iberoamerikarekin, herrialde arabiarrekin, mediterraneokoekin eta garatze bidean daudenekin. Lankidetzako proiektuak nazioarteko erakundeekin. Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa. Diru laguntzak eta bestelako laguntzak GGKEentzat eta beste erakunde batzuentzat.

KANPO ARAZOETARAKO MINISTERIOA - AECI

Errege-erregina Katolikoaren hiribidea, 4 28040 MADRIL

Tel.: 91 5838100 / 91 5838101 / 91 5838102; Fax zk.: 91 5838310 / 91 5838311 / 91 5838313

<http://www.aeci.es>

<http://wwwn.mec.es/mecd/becas/index.html>

www.ongdeuskadi.org · Bilbao · coordinadora@ongdeuskadi.org